

1

**Biktima izatetik  
biziraule izatera**



2



**EZAGUTZEN... Inma Mata**

3

**Gure Udalak aurrera...  
Enkarterriko Mankomunitatea**



4

**Jardunbide egokiak Bizkaian :  
EraSTOP Aplikazioa**



## KONPONKETA ESTRATEGIA



# 1 BIKTIMA IZATETIK BIZIRAULE IZATERA

Gaur egungo gizartean, emakumeak egunero bortizkeria desberdinak jasaten dituzte emakume izatearen gertaera hutsarengatik.

Bortizkeria hauek emakume horien bizitzaren eremu eta maila guztietan zuzenki eragina dute, eta normalean ikuspegi biktimista bat sortzen da, gizarteak emakume horiek ahulak eta laguntza behardunen moduan ikus ditzala indartzen duena.

Gertakari biktimizatzaile honek maila pertsonal, familiar, sozial eta komunitario batean ondorioak ditu.

Emakumeak beldurrarekin, tristurarekin eta lotsarekin lotutako emozioak izaten dituzte eta horietariko askok sortutako kalteen ondorio fisikoak sufritzen dituzte, sexu-transmisioko gaixotasunak, gaixotasun

Horregatik gaur egungo berdintasun politiketarik Konponketa Estrategia lantzea beharrezkoa dela ikusten da.

Genero eta jabekuntza ikuspegi batetik emakumeak bizipen horiei aurre egiteko tresnak eta baliabideak dituztelaren onartzean datza.

### **Konponketa Estrategia nola antola daiteke?**

- Gehigarri psikosozialarekin taldeko jardueren bitartez bere berreskuratze emozional eta osoaren prozesuan lagun dezaten.
- Autonomia eta jabekuntzaren indartzeko heziketa tresnekin.
- Eta giza eskubideetatik eta eskaintza instituzionalarekiko loturatik emakumeen bizitza egitasmoak indartuz



Ezagutzen...

2

## INMA MATA. “Volar” Dokumentala

Inma Mata Pelegay, “Volar” dokumentalaren protagonistetako batek (Gaztelumendi, 2017) bere bizipenetik prozesu hau bizitzearen esperientzia kontatzen digu eta taldean elkartzearen eta honengatik babestuta sentitzearen garrantzia azpimarratzen du.

Tratu txarretan eta genero indarkerian aditua, gaur egun “Mujeres que Aman Demasiado” elkartearen lehendakaria da (Bilbo).



### **Nola sortu zen “Volar” proiektua?**

Proiektua 2016an Emakundek Euskal Herrian zeuden genero indarkeriatik bizirik atera zirenen elkarte ezberdinekin (bi Gipuzkoan eta bi Bizkaian) harremanetan jarri zenean sortu zen. Helburua genero indarkeriaren onarpen soziala bilatzea eta bizirik irtendako emakumeenganako konponketa lana bultzatzea zen, bortizkeriaren arazoa gizartean ikusgai bihurtzeko.

Horrela batzarren urte baten prozesua hasi genuen zeinean gure esperientziak partekatu genituen eta, aldi berean, nola kontatu nahi genukeen gaiari buruz hitz egin genuen, zein moduan, Bertha Gaztelumendiren zuzendaritzaren menpean... Azkenean, “Volar” dokumentalaren produkzioan aurrera egitea erabaki genuen.

## **Zer egin liteke toki-administrazioetik emakumeenganako arreta hobetuz?**

Honetatik guztitik atera dudan oinarrizko ondorioa orain arte biktimen beharrak kontuan hartu ez direla da. Gauza asko egin direla egia da, baina prozesu hauen oinarrizko protagonistak bagina bezala ez gaituzte kontuan hartu. Gu uler gaitzaten emakumeei gehiago entzutearen beharra azpimarratzea gustatuko litzaidake eta salatzeke orduan hainbeste ez baldintzatzea ere.

Lagun-taldean gehiago nahastea beharrezkoa dela uste dut; gure burua biktimatza hartzea ez da bide erraza, eta gaitzateke lehenengo urratsa da. Bere profesionaltasuna zalantzan jarri gabe, administrazioeko langileen artean enpatia pixka bat gehiago garatzea beharrezkoa izango litzatekeela uste dut. Gure helburu nagusia hori izan da konkretuki, dokumental honen bidez eta bizirik irten diren emakumeen elkarte ezberdinen bitartez, emakumeei eremu bat ematea non babestuta eta ulertuta sentitzen diren, bere errealitateen ispilua diren.

## **Genero indarkeriaren aurkako prebentzioa sustatzeko zer nolako egiteak proposatuko zenituzke?**

Batez ere, hezkuntzan parte hartuz, balioetan

dagoen heziketa sustatuz (errespetua, elkarrekiko entzutea...), harremanetan eredu aldaketa bultzatuz desberdintasunarekin, maitasun erromantikoarekin eta abarrekin bukatzeko helburuarekin. Baita ere, baterako hezkuntzako eta Berdintasuneko politikak areagotuz. Dokumental hau helburu honetarako oso baliagarria da, eskolentzako, instituentzako, pertsona nagusientzako... egokia den materiala baita.

## **Zer eman dizu pertsonalki proiektu honetan parte hartzeak?**

Nire helburua genero gaitan hezitzea izan zen. Batez ere nire burua hobeto ulertzeko eta prozesu hau nola bizi dudan aztertzeke, gutako inork egoera horiek bizitzeaz salbuetsita ez gaudela jakitun izateke. Badakit maila pertsonalean nire esperientziatik eta heziketatik orain egoera horretan dauden beste emakume batzuei lagun diezaiekedala. Eta gauzarik politena da, gure burua ikusgai bihurtzearen beharretik abiatuz eta baliabiderik onena antolatzea delaren ustearekin, gero eta gehiago bizirik atera diren emakumeen elkarteak sortzen ari direla.

# 3

## ENKARTERRIKO MANKOMUNITATEA

Gure udalak martxan...



Enkarterriko Udalerrien Mankomunitatearen sexu indarkeriaren eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko Erakunde Arteko Tokiko Jarduketa eta Koordinazioaren III. Protokoloa oraintsu diseinatu da.

Dokumentu hau egindako Azterketa batetik abiatuz sortzen da zeinean Artzentales, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zallako Udalerrietan kasu hauen arduraren inplikaturako agenteen koordinazioa hobetzeko balio duten sendotasunak, gabeziak eta behar zehatzak jasotzen diren.

Horretarako eskualdeko mahai tekniko bat eratu da non Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen langile tekniko arduradunak, Osakidetzako langileak (emakumezkoak diren gizarte-langileak, medikuak, pediatrak eta psikiatrak), Tokiko Poliziako langileak, Balmasedako Ertzaintzakoak, berdintasun teknikariak (emakumezkoak) eta B.F.A.-ko Laguntza Psikologikoa emateko Programaren langileak.

Enkarterriko Mankomunitateak eta 9 udalen arduradun politikoak osatzen duten mahai politiko bat sortu da ere.

**Informazio gehiago izateko harremanetan jar zaitezke::**

[info@enkarterri.eus](mailto:info@enkarterri.eus)

Jardunbide egokiak  
Bizkaian



# 4

## BERDINBIDEAN BIZKAIA: “EraSTOP” APLIKAZIOA Indarkeria sexistaren aurkako borrokarako tresna berria

Durangoko Udalak bere zerbitzutik urteak daramatza emakumeen kontrako bortizkeriaren aurkako prebentziorako programa ezberdinetan lan egiten.

Jaietara irtendako neska gazte askok bere etxeetara itzultzerakoan jasotako bortizkeria sexisten ondorioz, Durangoko Udalak udalerriko pertsona eta agente ugarien atxikimendua gehitzen joan den Indarkeria Matxistaren aurkako Tokiko Itun bat bultzatu zuen.

Prebentzioan egindako urrats bat bezala, *EraStop* tresna sortzea erabaki zen, Udaltzaingoarekin eta Ikastetxeekin sareko lana suposatu duena.

Ekimenaren gauzarik interesgarriena inplikaturako agenteekin sortu den sentikortze prozesua izan da (Polizia, gaztedia, herritartasuna orokorrean eta udalerriko agenteak).

**EraStop** aplikazioak hurrengo aukerak ditu:

- **Eraso bat jasotzen ari Naiz Botoia** berehala Udaltzaingoari abisatu diona.
- **Lagun lezadazu Botoia** aplikazioa instalatuta duen lagunaren zerrendako edozein pertsonarekin laguntza modua aktibatzea ahalbidetzen duena.
- **Eraso bat Salatzeko Botoia** 112ra bidetzen duena.



**informazio**

**gehiago** nahi

baduzu;

[aukeraberdintasuna](#)

[@durango-](#)

[udala.net](#)